

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Lizarrako merindadea (Nafarroa)

Boilurraren arrastoen atzetik

Sekretu ugari ezkutatzen du Lizarrako merindadeak. Horietako bat boilurra da, gaztelaniaz *trufa* eta frantsesez *truffe* esaten zaion onddoa. Naturak ematen dituen fruituen artean misterio kutsu handiena duenetakoa da, zalantzarik gabe. Inguruotan, ordea, urtetako jardun isilaren ondoren, merindadeko boilur biltzaileak haren sekretu gehienak ezagutzen ari dira. Hala, 2007an ireki berri duten museoan bildu dute boiluraren inguruko jakintza guztia. Lehenago, nekez ahaztuko dugun txango ederra egitera gonbidatu nahi dugu irakurlea, non eta boilurraren eremuan bertan.

Boilurra da Lizarra inguruko labar ikusgarriek
gordetzen duten altxorretako bat.



Nafarroako hego mendebaldeko eskualdea da Lizarrako merindadea, Urbasa eta Andia mendilerroen muga naturaletik hasi eta Ebro ibaiak bustitzen dituen lur emankorretara doana. Ertz guztietatik dario historia eskualdeari, ez baitu alferrik zeharkatu mendeetan Done Jakue bideak. Artean ere oparoa da, ermita eta monasterio erromaniko andana horren adibide.

Lizarra da eskualdeko hiriburua, XII. mendeko hiri monumental paregabea, Erdi Aroko garai oparoen lekuko. Aipagarriak dira, 13.000 biztanleko herri honetan, Nafarroako erregeen jauregia –XII. mendekoa–, garai bereko San Pedro Ruakoaren eliza, eta beste hainbat eraikin.

Euskararen aztarnak

Andres Iñigo euskaltzainak 2004an kaleratutako txostenaren arabera, zalantzarik ez dago Lizarrako merindadeko eremurik handiena euskalduna izan zela garai batean, toponimia eta agiri zaharrei men eginez bederen. Eskualdeko hiriburuaren izena bera jatorrian euskalduna izateaz gain –Lizarra, beranduago sortu zen Estella izen erromantzeak poliki-poliki baztertu zuena–, asko dira merindadean euskal izen gardenak dituzten ibarrak (Berrotza, Gesalatz), herriak (Aramendia, Iturgoien, Oteitza) eta bestelako mendi, erreka, zelai, bide, soro eta abarrak. Agiriei dagokienez, aipagarria da, esaterako, 1561ean Lizarran inprimatu eta Nafarroan argitaratu zen euskarazko aurreneko liburua, Santxo Eltsoren dotrina. Hortik aurrera, ibarraren iragan euskaldunaren erakusgarri diren hamai-ka dokumenturekin egin lezake topo ikerlariak.

Hizkuntza bizia galdu bazen ere, lizarratarren euskal kontzientzia historikoa eta euskaltzaletasunaren hazia ez zen galdu nonbait, azkeneko hiru hamarkadetan, Lizarra Ikastola proiektua eta beste hainbat ekimen abian jarri zirenetik, egiaztatu ahal izan den bezala. Kontzientzia biziberritu horren ondorioz, gaur egun euskara

karrikako hizkuntza ere bada, neurri batean, Lizarran.

Allin eta Metauten ibarrak

Lizarra iparraldean dago Allin udalerria, Urederra erreka bustitzen duen ibar malkartsuan, mendebaldean gure txangoaren jomuga den Lokiz mendilerroa, eta ekialdean San Fausto eta Etxabarriko haitzak dituela. Hamar herrixkek osatzen dute udalerria, zortziehun biztanle

pasarekin. Metauten ibarrak, berriz, sei herrixka eta hirurehun biztanle inguru ditu. Ibarrok eskaintzen duten erakargarritasunik handiena herrixka txikien lasaitasuna eta eremu natural zoragarria uztartzean sortzen den atsedenerako ingurune paregabea da, zerbitzu guztiak eskaintzen dituen Lizarratik minutu gutxira, beti ere.

Lokiz mendizerran zeharreko itzuliak Muneta, Aramendia eta





Bi paisaiaren kontrastea agerian: lautada horixka lehen planoan, eta labar garaiak atzean.

Ganuz a herri-guneak bisitatzan ditu. Horietako edozeinetan eman dakioke, beraz, txangoari hasiera. Muneta aukeratuz gero, ordekan egingo ditugu lehenengo lauzpabost kilometroak, zangoak berotzeko modu egokienean. Hartara, Lokizeko mendizerratik jaitsiera azkarra egin eta abiapuntura itzuliko gara zuzenean, amaieran herririk herriko zeharkaldi nekosoagoa egin beharrik gabe.

Labar ikusgarriak

Muneta atzean utzi eta hortik gertu dagoen Aramendia herrira helduko gara luze gabe. Lokiz mendizerraren ertzari paralelo zaion bide zabalari jarraiki, haranaren bestaldean dagoen Ganuza herrirantz joko dugu. Ganuzatik abiatzen da Lokiz mendizerrako eremu garaiera heltzeko bidexka bakanetako bat, Santiago baselizara doana hain justu. Izerdi pixka bat

isuri eta maldaren azken zati bihurria zenbait harlosa eder gairidituz osatu ondoren, Ganuzako harratera helduko gara eta Lokizeko Santiago baseliza –XIII. mendekoa, inguruko nekazarien bileren topaleku izan dena– hautemango dugu bertatik oso gertu.

Mendizerrako ertza hainbat kilometrotan hedatzen den zorabiatzeko labarrak osatzen du, baina bestaldean paisaia oso bestelakoa da: mediterranean landaredi itxiak estaltzen duen lautada amaigabea. Kosme deuna eta Damian deunaren baselizatik gertu dagoen Lokiz gailurra da mendizerrako zati horretako puntu garaiena (1.115 m), eta bertara abiatuko gara, ostera haranera jaitsi aurretik. Lokizeko Santiago ermitatik gertu mendizerraren ertzera inguratzetik ez dagoenez –landaredia oso itxia baita–, sapalda zeharkatzen duen bide zabaletik egingo ditugu ondorengo kilometroak, harik eta,

Sartzaleta gailurretik hurbil, landaredia apur bat urritu eta, orduan bai, amildegiaren ertzean bertan ibiltzeko aukera izan arte.

Sartzaleta gailurrera heldu eta behakoa hankapean dugun Lizarrako merindadera zuzenduz gero, ikuspegi paregabearekin egingo dugu topo: Monjardin, Jurramendi sonatua, Urbasa... Hegoaldean, berriz, Kodes eta Kantabria mendizerrak. Xenda bihurriaren arrastoa jarraituz, Aramendia lepoa pasa eta Pirinioetako Posets mendian zendu zen Lizarrako mendizale baten oroimenezko postontzia aurkituko dugu Ibirin gailurrean (1.100 m). Landaredia oso itxia da inguru horretan, eta arretaz jarraitu xendari. Txangoa amaitzeko, pagadi eder batean dagoen Lokiz gailurrera (1.115 m) iristea besterik ez da falta, metro gutxiko igoera laburrean. Ondoren, Galdeano eta Muneta aldera jaisten den xendari jarraituko diogu, jaitsiera azkarrean abiapuntura helduz.

Boilur bilketa

Nafarroan sarrien aurkitzen den boilur beltz (*tuber melanosporum*) bilketa azarotik martxora bitartean egin ohi da. Adituen iritziz, urtarri-lean bildurikoak izan ohi dira kalitate onenekoak.

Eskarmentu handiko aditua behar du izan, beste ezeren gaintik, boilur biltzaileak; inguruaren ezagupen zehatza ezinbestekoa izateaz gain, pazientzia ere sobera behar da, hura bilatzea ez baita zientzia zehatza. Biltzailearen laguntzaile aldentezin den zaku-

rrak mendia usnatuko du, harik eta boilur zantzuekin topo egin arte. Orduan, boilurra lurpetik erauzi behar da kontu handiz, sarritan laban berezi baten laguntzaz. Ondoren, zuloa itxi behar da, gerora ere bertan boilur berriak erne daitezten. Eta, nola ez, lurpetik erauzi berri den boilurra zakurraren muturrean paratu behar da, hark usnatu eta ondorengo boilur bilatze saioetarako lurrina uneoro presente eta xede bakarra izan dezan.

Diamante beltza

Boilurra lur azpian bizi den onddoa da. Haren ezaugarri nagusia inguruan duen zuhaitz baten sustraiei elkarturik bizirautea da. Zuhaitzak berak ere jasotzen du elkarkidetzaren horren onurarik. Onddoak zuhaitzarengandik lortuko ditu beharrezko dituen karbohidratoak, eta zuhaitzak, berriz, bere sustrai amarauna hedatuko du boilurraren bitartez, sustantzia elikagarri gehiago xurgatuz.

Boilurra, nolabaiteko borobiltasuna duen fruitua izanagatik, ez da, gehienetan, forma oso erregularrekoa, eta pikorrak izan ohi ditu bere azalean. Intxaur baten neurria izan ohi dute txikienean, eta pilota bate-

Boilurrari buruzko museoa ere bada

BERTA BUZUNARIZ



Metauten herrian dago Boilurraren Museoa. Errepide nagusietan ez da museo ingurura gidatuko gaituen seinalerik falta, beraz erraza da bertara ailegatzea. Urte guztian dago zabalik, udan asteartetik igandera bitar-

tean eta uda garaitik kanpo ostiral eta asteburuetan. Bisita gidatuak antolatu ohi dituzte nahi izanez gero. Informazio gehiago museoaren webgunean: www.museodelatrufa.com.

na, handienek. Pisua, berriz, 10 eta 60 gramo artekoa.

Non aurkitu?

Lizarrako merindadeak, Nafarroako beste zenbait eremuk bezala, ezaugarri egokiak ditu boilurraren kokaleku izateko. Alegia, mediterranear klima epela baina hezea. Harizti eta artadietan aurki daiteke on-doa usu-baita hurritzak edo zumelak dauden basoetan ere-, 600 eta 900 metro bitarteko toki eguzkitsuetan. Izan ere, ezinbestekoa da eguzkiak boilurrari zuzenean eragitea. Zuhaitz mota horien inguruan, gainera, ez da bestelako landaredirik sortzen, eta hori mesedegarria du bere garapenerako. Zuhaitzarekiko kontaktua nahikoa baitu, finean.

Boilurraren lurrina

Bere muinean esporak sortu ahala, boilurra lurrin bizia hedatzen hasten da. Horrela, lurpeko onddo berezi horrek animalia askoren arreta bereganatuko du. Kontuan izan behar da gizakia ez dela lurrin hori hautemateko gai berau lurpean dagoenean, baina bai animalia ugari: zerriak, basurdeak, zakurrak, azeriak... Horietan, zakurra omen da gure lagunik onena, eta hala da behintzat diamante beltza biltzeko garaian. Zakurra eta gizakia, ohiko bikotea Lizarrako merindadeko basoetan. ■

Goiko argazkian, Lizarrako merindadeko lautada. Behean, eskualdeko hiriburua, Lizarra, Erdi Aroko aztarna askoren gordelekua.